

Situación País Vasco 2023

Zertan den Euskadi

2023ko apirilaren 20an

Mezu nagusiak



BPG

2022an BPG-aren hazkundera % 4,4ra iritsi zen Euskadin. **Susperraldiak 2023an eta 2024an jarraitzea espero da, % 1,3ko eta % 2,9ko aurrerapenekin, hurrenez hurren.** Euskadi pandemia aurreko mailara itzul liteke 2023an BPG-ari eta per capita BPG-ari dagokienez. 2022tik 2024ra bitartean 24.600 lanpostu berri sor litezke.



Hazkunderaren eragileak

Ekonomia moteldu egin da, baina duela hilabete batzuk aurreratutakoa baino gutxiago. Erregaien eta energiaren prezioen hazkundera erronka bat da euskal esportatzaileentzat; batez ere, Europako lehiakide nagusiekiko prezio-diferentzia mantentze bada hurrengo hilabeteetan. Inflazioaren eta interes-tasen igoera eragin negatiboa izaten ari dira gastuan, baina espero baino txikiagoa. Euskadin, Espainia osoan baino igoera txikiagoa izan dute prezioek. Gainera, euskal sektore pribatuaren zorpetze-maila batezbestekoaren azpitik dago.



Hainbat faktorek lagunduko diote ekonomiari


Jarduera ekonomikoak trakzioa irabaziko du NGEU funtsak exekutatzaren diren heinean eta familiei eta enpresei eragiten dieten ziurgabetasunak desagertzen joan ahala. Botila-lepoak eta energiaren kostuaren gaineko ziurtasuna pixkanaka konpontzeak industria suspertzen lagunduko du, garrantzi bereziarekin automobilgintzan eta ekipamendu-ondasunetan. Inflazioaren zuzenketak aurrera jarraituko du, eta ez dirudi gas-horniduran arazoak daudenik. Enpresak eta familiak hobeto prestatuta daude hegakortasun handiagoko inguruneari aurre egiteko. Ez da desorekarik ikusten sektore ekonomikoetan.



Arriskuak

Oraindik ere asko dira agertokia hondaraz dezaketen faktoreak. Tentsio geopolitikoak zabaldu egin liteke. Txinan COVID kasuak ugartzeak eta erabateko konfinamendu-politiketara itzultzeak arriskuan jarriko lukete intsumoen eskuragarritasuna. Errenta-itunik ez egoteak inflazioak altu egoten jarraitzea eragin dezake. EBZk gehiegizko erantzuna izan lezake. Ziurtasuna eman behar da finantza publikoen karga fiskalari eta jasagarritasunari dagokienez. Giza kapital ezak murriztu egin lezake enpresen hazkundera.


2022ko bigarren seihilekoan ikusitako moteltzea 2023 hasieran gainditu egin dela dirudi



Euskadi: BPG-aren beherakada 2020an eta susperraldia 2021ean, Espainia osoan bezala


BPG-AREN ALDAKETA 2020AN

(%, URTEKO HAZKUNDEA)



BPG-AREN ALDAKETA 2021EAN

(%, URTEKO HAZKUNDEA)



Balearrak (-% 21,7) eta Kanariak (-% 18,1), eskalatik kanpo ezkerreko grafikoa, nagusi izan ziren 2020ko beherakadetan.

Balearrak (eskalatik kanpo eskuinekoan) hazkundearen buru izan ziren 2021eko igoeran (EIN: 10,7; BBVA: 10,9).


Iturria: BBVA Research, EINetik abiatuta.

Ekonomia espero baino hobeto ari da eusten

Atzeraldi ekonomikoa saihestu egin da, eta hazkundera bizkortu

GIZARTE-SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

(CVEC, 4H19 = 100)




- Krisialdia hobeto igaro ondoren, zerbitzu pertsonalen garrantzi txikiagoan oinarrituta, baina turismoaren bultzada txikiagoarekin, Euskadik enpleguaren dinamismo txikiagoa erakutsi du berriro.
- Zerbitzu publikoak eta jarduera profesionalak Bilbo Handian kontzentratuta egoteak haren dinamismo handiagoa azaltzen du, eta horrenbestez, Euskadiko gainerako lekuetan hainbesteko dinamismorik ez egotea.

Ekonomia espero baino hobeto ari da eusten

Atzeraldi ekonomikoa saihestu egin da, eta hazkundera bizkortu

EGOILIAR NAZIONALEK BBVA-REN TPV-AN TXARTELAREKIN EGINDAKO GASTUA

(ERKIDEGOKO KPI-AREKIN DEFLATATUA, A/U, %)



Iturria: BBVA Research, BBVAtik eta EInetik abiatuta.


- Inflazioak, ziurgabetasunak eta enpleguaren dinamismo txikiagoak moteldu egin dute kontsumoaren aurrerapena.
- Hala ere, duela hilabete batzuk espero zitekeenaren aurka, BBVAren TPVetan erregistratutako txartelarekin egindako gastuak erakusten dute kontsumoak gora egin zuela 2022ko 4. hiruhilekoan, eta, gainera, bizkortu egin dela 2023ko lehen hiruhilekoan.
- Euskadik 2022ko hasieran profil ezberdina izateak badu azalpenik: otsailaren 10era arte, kontsumo-murrizketa handiagoak egon ziren, Omikron aldaera zela-eta.
- 2023ko 1. hiruhilekoan, nazionalek txartelarekin egindako gastuak –inflazioaren ondorioez zuzenduta– dinamismo handiagoa izan zuten Euskadin.

Ekonomia espero baino hobeto ari da eusten

Atzeraldi ekonomikoa saihestu egin da, eta hazkundera bizkortu

BBVA-REN TPV-ETAN ERREGISTRATUTAKO GASTUA, ATZERRIKO TXARTELEKIN EGINA

(A/U, %)



Bizkaiko 2022ko bigarren hiruhilekoko datua (457) eskalatik kanpo dago.
Iturria: BBVA Research, BBVAtik abiatuta.



- 2022ko 2. hiruhilekora arte turismoa nabarmen suspertu ondoren, inguru turistikoak krisiaren aurreko okupazio-mailetara hurbiltzen hasi ziren.
- Turismo-gastuek bultzada berezia eman zieten Balearrei, Valentiako Erkidegoari, Kanariei edo Kataluniari; hala ere, indarra galdu zuten bigarren seihilekoan. Dena den, prezioen igoeran oinarrituta, txartelarekin egindako gastuak gaitu egin dituzte pandemiaren aurreko mailak; batez ere, turismoarekiko mendekotasun handiena duten eremuetan.
- 2023ko 1. hiruhilekoan, atzerriko turistek BBVAren TPVetan txartelarekin egindako gastua % 27 igo zen Euskadin 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 67 Bizkaian.
- Aurrera begira, turismoaren ibilbidea txikiagoa izango da, eta jatorrizko merkatuetan errenta erabilgarri txikiagoa izateak eragina izango du.

Ekonomia espero baino hobeto ari da eusten

Atzeraldia ekonomikoa saihestu egin da, eta hazkundea bizkortu

TXARTELAREKIN EGINDAKO GASTU PRESENTZIAL NOMINALA EUSKADIN. SEKTOREAREN ARABERA*

(A/U, %)



*BBVAk jaulkitako txartelekin egindako gastua gehi bezero ez diren gastua BBVAren TPVetan. Eskalatik kanpo dago 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako bidaietako gastua (+% 1322 a/u) eta +% 349 a/u, hurrenez hurren).

Iturria: BBVA Research, BBVAtik abiatuta.


Txartelarekin egindako gastuen datuek erakusten dutenez, 2022ko bigarren erdian turismoarekin eta aisiarekin lotutako gastu-taldeetan gertatu zen moteltzerik handiena. 2023ko lehen hiruhilekoan aldiz, heterogeneoa izan da susperraldia: ostatu-eta aisialdiarekin, osasunarekin, modarekin edo kirolarekin lotutako gastuak bizkortu egin dira, eta elikadura edo garraio-gastuak moteldu.

Ekonomia espero baino hobeto ari da eusten

Atzeraldi ekonomikoa saihestu egin da, eta hazkundera bizkortu

EUSKADIN BIZI DIREN BBVA-REN BEZEROEN* GASTU PRESENTZIALA, HELMUGAREN ARABERA


(2019KO ALDI BERA=100)



BBVAK jaulkitako txartelekin egindako gastu presentziala, ohiko bizilekuaren probintziatik kanpo. Parentesi artean, gastu osoan duen pisua. Iturria: BBVA Research, BBVAtik abiatuta.

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUETAN BIZI DIREN BBVA-REN BEZEROEN* GASTU PRESENTZIALA EUSKADIN (2019KO ALDI BERA=100)

(2019KO ALDI BERA=100)




Euskadiko biztanleek autonomia-erkidegotik kanpo egindako gastua handitu egin zen 2022ko bigarren seihilekoan, eta hazten jarraitu zuen 2023ko lehen hiruhilekoan; bereziki, beste autonomia-erkidego batzuetan egindakoak. Aitzitik, Espainiako gainerako lekuetako BBVAren bezeroek Euskadin egindako gastua moteldu egin zen 2023ko lehen hiruhilekoan.

Ekonomia espero baino hobeto ari da eusten


Atzeraldi ekonomikoa saihestu egin da, eta hazkundera bizkortu

TXARTELAREKIN EGINDAKO GASTU PRESENTZIALA EUSKADIN*

(2019KO HILEKO BATEZBESTEKO=100)



EUSKADIN BIZI DIRENAK, BEREN BIZILEKUAZ BESTELAKO EUSKADIKO PROBINTZIETAN




(*) BBVAren TPVetan kreditu- edo zordunketa-txartelekin egindako gastua.
Iturria: BBVA Research, BBVAtik abiatuta.

2023an, Espainiako gainerako lekuetan bizi direnen gastuak 2022koaren antzeko portaera izan zuten. Euskadin bizi direnei dagokienez, bizilekuaz bestelako lurralde historikoetan egindako gastuak 2022an egindako gastuaren antzera eboluzionatu zuten lehen hiruhilekoan.

Ekonomia espero baino hobeto ari da eusten


Atzeraldi ekonomikoa saihestu egin da, eta hazkundera bizkortu

TXARTELAREKIN EGINDAKO GASTU PRESENTZIALA EUSKADIN ETA LURRALDE HISTORIKOETAN ASTE SANTUAN* (2019KO ASTE SANTUA=100)



*BBVAren bezeroek beren ohiko bizilekuaren probintziatik kanpo txartelarekin egindako gastu presentziala. Aste Santuko datak: **2018**: mar 24-api 2, **2019**: api 13-api 22; **2020**: api 4-api 13; **2021**: mar 27-api 5. **2022**: api 9-api 18, **2023**: api 1-api 10. Iturria: BBVA Research, BBVAtik abiatuta.

EUSKADIKO BIZTANLEEK TXARTELAREKIN EGINDAKO GASTU PRESENTZIALAREN HAZKUNDEARI EGINDAKO EKARPENA HELMUGAREN ARABERA 2023KO ASTE SANTUAN* (2019KO ASTE SANTUA=100)




Parentesi artean, 2019ko Aste Santuan Euskadiko egoiliarrek autonomia-erkidego bakoitzean egindako gastuaren pisua.

2023ko Aste Santuan, Euskadiko turismo-helmugetako gastua (bereziki Bizkaikoa) oso portaera positiboa erakusten ari da, 2019ko Aste Santuan erregistratutakoaren bikoitza baino handiagoa izateraino. Bestalde, Euskadiko egoiliarrek beren probintziatik at egindako gastuaren igoera aste hauetako ohiko helmugetan eman da nagusiki.

Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere


Hegakortasun handiagoa ikusten da finantza-merkatuetan

FINANTZA-TENTSIOEN INDIZEA



BANKAREN BILAKAERA BURTSAN


(INDIZEA, MARTXOAREN 6A = 100)




Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

Inflazioa txikitu egin da, baina azpikoa bizkortu

ELIKADURAREN PISUA ESQUALDEKO KPIan ETA INFLAZIO OROKORRA



INFLAZIO OROKORRA ETA AZPIKOA (2023KO MARTXOA, %)




Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

Interes-tasak espero baino gehiago igoko dira

ETXEBIZITZEN SALMENTA


(AURTEN URTEAN ZEHAR METATUA)



Iturria: BBVA Research, CIENetik abiatuta.

ETXEBIZITZEN SALMENTA, SEGMENTUKA

(URTE ARTEKO HAZKUNDEARI EGINDAKO EKARPENA, PP)



Iturria: BBVA Research, MITMATik abiatuta.

Lehen egoitzetako salerosketak gutxitzeak –enplegua sortzeko erritmo baxuari eta interes-tasen gorakadari lotuta– mugatu egiten du higiezinaren merkatuaren susperraldia. Atzeritarrek Euskadin egindako eragiketen pisua (2022an, % 5,2) txikiagoa da Espainia osoan baino, baita bigarren egoitzekin lotutako eragiketena ere (% 3,9; hau da, batezbestekoa baino 9,2 puntu gutxiago).


Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

Interes-tasak espero baino gehiago igoko dira


HIGIEZINEN MERKATUAREN PORTAERA

(2022KO 2. SEIHILEKOA VS 1. SEIHILEKOA, %, CVEC)

ETXEBIZITZA-TRANSAKZIOAK



HIPOTEKAK




- Ziurgabetasunaren eta interes-tasen igoeraren eragina 2022an hasi zen nabaritzen, etxebizitzaren salerosketen eta emandako hipoteken beherakadarekin.
- Atzerritarrek bigarren bizilekuko erosketak galgatu zituztenez, transakzioak asko doitu ziren Balear Uharteetan eta Kanarietan.
- Euskadin, eragiketa garrantzitsuak lehen bizilekukoak dira, atzerritarren eragiketak eta bigarren bizilekukoak ez baitira erabakigarriak egoitza-merkatuaren dinamikan.

Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

Interes-tasak espero baino gehiago igoko dira

INTERES-TASA ERREALEN ALDAKETAK KONTSUMO PRIBATUAREN HAZKUNDEARI EGINDAKO EKARPENA* (PUNTUAK)




- EBZk finantzaketa-kostua handitzen jarraituko duela aurreikusten da, gutxienez % 4ra arte. Horrek esan nahi du abenduan espero zirenak baino oinarrizko 125 puntu gehiago egongo direla.
- Aurrera begira, interes-tasek ezustean gora egiteak ekonomiak 2023an eta 2024an ehuneko bat baino gehiago aurrera egiteari uztea eragin dezakete, etxe eta enpresen kontsumo eta inbertsioetan izan dezaketen ondorioek eraginda.

Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

Inflazioak murriztu egin du aurrezkiaren erosahalmena

BESTE SEKTORE EGOILIAR BATZUETAKO GORDAILUAK

(ESKUALDEKO KPIaren ARABERA DEFLATATUTA, 4H19 = 100)



Bestelako etxebizitza-sektoreetako gordailuak, KPI orokorrekin deflatatuak.
Iturria: BBVA Research, Espainiako Bankutik eta EInetik abiatuta.


Konfinamenduak eta kontsumo-murrizketek aurrezpenean eragindako igoeraren ondoren, etxeetako gastuaren susperraldiak eta inflazioak murriztu egin dute etxeetako aurrezpena. Euskadin eta Murtzian, beste sektore egoiliar batzuetako gordailuek 4H19an baino balio erreal txikiagoa zuten 2022an. Baina eragina oso desberdina izan liteke aurrezpenari dagokionez.

Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

LGS handitzearekin batera, areagotu egiten dira laneko arriskuak

LGSren ESTALDURA 2023AN

(2021EAN HILEAN 1.267,60 €-TIK BEHERAKO SOLDATA JASO ZUTEN SOLDATAPEKO LANGILEEN %)



- Gutxieneko soldataren igoerak eraginpean har ditzakeen langileen ehunekoa handiagoa da Espainiako hegoaldeko autonomia-erkidegoetan. Extremadura, Murtzia, Andaluzia eta Kanariak nabarmentzen dira.
- LGSren igoerak enpleguaren sorreran izan ditzazkeen ondorioak: 0,2 eta 1,2 puntu arteko hazkunde txikiagoa 2023an.

Hirugarren soldata-dezileko soldatapeko langile batek 2021ean kobratu zuen soldata 1.267,60 €-koa da, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EPAren) arabera. 2023an, hilean 1.260 €-tan egongo litzateke gutxieneko soldata (1.080 €, urteko 14 ordainsari).


Iturria: BBVA Research, EIneren EPA 2021etik abiatuta.

Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

Inbertsio pribatua ondorio kaltegarriak ikus ditzazkegu

BIZITEGIZ BESTELAKO ERAIKUNTZA-OBRETARAKO BISAK. AURREKONTUAK

(EUROAK, HILEKO BATEZBESTEKOA, 2019=100, CVEC)




- NGEU funtsek bultzatuta, autonomia-erkidego batzuetan bizkortzen hasi da bizitegiz bestelako inbertsioa, baina erritmo motelean oro har. Euskadin, 2022an, bizitegiz bestelako obrarako bisen atzerakada txiki bat ikusi zen (% 2,2 a/u), Espainia osoko aurrerapenarekin konparatuta (+% 23 a/u).
- NGEUen laguntza, obra publikoaren bultzada, konfiantza berreskuratzea eta Europako eskaria suspertzea funtsezkoak dira jarduera sustatu eta ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioa bizkortu eta industria-susperraldia sendotu dadin.
- Funtsek azkarrago lekualdatu behar dira sektore publikotik sektore pribatura, eta ziurgabetasunak eta interes-tasek inbertsioaren susperraldia geldiaraztea saihestu behar da.

Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere


Inbertsio pribatua ondorio kaltegarriak ikus ditzazkegu

ETXEBIZITZEN ETA OBRA BERRIKO BISEN SALMENTA EUSKADIN (URTEKO METATUA ABE-19 = 100)



Iturria: BBVA Research, MITMATik abiatuta.

ETXEBIZITZEN BISAK EUSKADIN (JOERA-PORTAERA ETA BEHATUTAKO DATUAK, CVEC DATUAK)




Batezbestekoan ez bezala, etxebizitzaren hastapenak etxebizitzaren salmenten baino portaera hobea erakutsi zuten COVIDaren ondoren Euskadin. 2022ko bigarren hiruhilekotik aurrera hasi zen bisen sinadura okertzen; salmenten joera-aldaketa, berriz, ez zen 2022ko azken hiruhilekora arte iritsi.

Susperraldiak zenbait oztopo ditu oraindik ere

Industriak oraindik ez du berreskuratu krisia baino lehen zeukan enplegu-maila

GIZARTE-SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

(4H19 ETA 1H23 BITARTEKO ALDAKUNTZA ETA SEKTORE-EKARPENAK, CVEC, %)



- Zerbitzu publikoek eta jarduera profesionalak enplegua bultzatzen dute, baina aurrerapena ez da nahikoa industria eta merkataritzaren dinamismo falta konpentsatzeko.


(*) Parentesi artean, sektore bakoitzak 4H19an Andaluziako afiliazio osoan duen pisua.
Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzatik abiatuta.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Energiaren kostuaren igoera partzialki lehengorutzen ari da

EUROPAKO GASAREN PREZIOAREN GEROKOAK

(EUR/MWH)




- **Eszenario zentrala: prezio oraindik altuak (egungo mailetatik gertu) 2023-2024an, gas-eskasiarik gabe:** beste iturri batzuetako fluxuek, izakinek eta eskaera txikitzeko neurriek eskaintza txikiagoa izatea konpentsatuko dute 2023-24an, Errusiako inportazioek egungo mailetan jarraitzen badute eta tenperaturak batezbesteko historikoetatik gertu mantentzen badira behintzat.
- **Errusiak gasbidezko hornidura are gehiago murrizten badu,** nahikoa gas egungo litzateke 2023ko negurako, baina 2024an beste errazionamendu bat egin beharko litzateke.
- **Errusiak gas natural likidotuaren (GNL) hornidura murriztuko balu, inpaktua ez litzateke oso esanguratsua izango:** merkatuak globalak dira, eta Europar Batasunak beste ekoizle batzuetatik inportatuko luke GNLa.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Energiaren kostuaren igoera partzialki lehengorutzen ari da

BEHERANZKO BERRIKUSPENAREN INPAKTUA PETROLIOAREN ETA GASAREN PREZIOETAN (2023ko URTEKO HAZKUNDE-TASAREN PUNTUAK)




- Petrolioaren eta gasaren prezioa murrizteak batez beste 0,6 puntuko ekarpena egingo lioke 2023an BPGd-aren hazkunderari Espainian.
- Bultzada hori 0,8 puntuetara hurbil daiteke energiaren erabileran intentsiboenak diren erkidegoetan, hala nola Galizian, Aragoian eta Nafarroan.
- Baina intentsitate txikienekoetan ere ehuneko erdi bultzada lezake hazkundera.
- Euskadin, BPG-aren 0,6 puntutik gorakoa izan daiteke bultzada 2023an.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Susperraldia mugatua izaten ari da mundu-mailan

BPG: URTEKO HAZKUNDEA TERMINO ERREALETAN

(%)



● Lehengo aurreikuspenak (4H22) ■ Egungo aurreikuspenak (1H23)

(* Lehengo aurreikuspenak: 2023an % 0,5 eta 2024an % 1,8 Ameriketako Estatu Batuetan, 2023an % 0,1 eta 2024an % 2,0 eurogunean, 2023an % 5,0 eta 2024an % 5,0 Txinan.

Iturria: BBVA Research.


- Munduko BPG % 2,8 inguru haziko da 2023an (aurreikusitakoa baino 0,5 puntu gehiago) eta % 3,3 (0,0 puntu) 2024an, 2022an % 3,2 igo ondoren.
- 2023rako aurreikuspenen goranzko berrikuspena AEBn eta eurogunean; azkenaldiko datu positiboengatik eta energiaren prezio baxuagoengatik.
- 2023ko BPG-ren goranzko berrikuspena Txinan ere: berriekierak kontsumoa eta eskaintzaren normalizazioa bultzatuko ditu; estimuluek inbertsioa babestuko dute.
- Moteltze-aurreikuspenek bere horretan jarraitzen dute, politika monetarioaren eta inflazio handiaren ondorioz, baina faktore batzuk (sektore pribatuko balantzeak, NGEU Europan) lagungarriak izango dira, eta litekeena da atzeraldi sakon bat saihestea.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Txinako irekierak bultzada eragin dezake

TXINA: PMI ADIERAZLEAK


(50 BAINO GEHIAGO: HEDAPENA; 50 BAINO GUTXIAGO: UZKURDURA)



Iturria: BBVA Research, Haver-en datuetatik abiatuta.

KANPO-MERKATARITZA TXINAREKIN

(2017-2022 BATEZBESTEKOA, %)




Iturria: BBVA Research, Datacomex-etik abiatuta.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Botila-lepoak pixkanaka desagertzeak bultzada ematen dio industriari

INDUSTRIA-EKOIZPENA MUGATZEN DUTEN

FAKTOREAK* (FAKTORE MUGATZAILEA DELA ADIERAZTEN DUTEN ERANTZUNEN %)



(*) Ekipamendu-ondasun edo lehengai nahikorik ez.

Iturria: BBVA Research, industria-koiunturari buruzko inkestatik abiatuta. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa.

- 2019az geroztik, industriak ondorio negatibo batzuk jasan ditu: zerga-aldaketak, erregulazio-eta teknologia-ziurgabetasuna, pandemia, telelana, beste garraio-modu batzuen lehia...
- **Negoio-mailak berreskuratzeko eragozpenik handiena** botila-lepoak dira, zenbait insumoren hornidurari eragiten baitiote.
- Eskaintza **suspertzen hasi dela adierazten duen ebidentzia dago**. Automobilaren kasuan, pilatutako eskaria azaleratu liteke, eta 10 puntu baino gehiago bultzada lezake matrikulazioen hazkundera 2023an.
- Autonomia-erkidego industrialen artean, Madrilek eta Valentziako Erkidegoak bakarrik dute oraindik produkzioa faktore horren ondorioz modu esanguratsuan mugatuta.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Botila-lepoak pixkanaka desagertzeak bultzada ematen dio industriari

IBILGAILU MOTORDUNEN EKOIZPENA ETA AUTOMOBILEN MATRIKULAZIOAK 2022/23an (DATUAK CVEC. 2019 = 100. HILEKO BATEZBESTEKOA)



IBILGAILU
MOTORDUNEN
FABRIKAZIOA

ESPAINIA

22ko urt.-uzt. 75,4

22ko abu.-23ko urt. 92,0

ESPAINIA

22ko urt.-uzt. 59,0

22ko abu.-23ko ots. 72,9

EUSKADI

22ko urt.-uzt. 51,1

59,6

- Iazko urtarriletik uztaiera bitartean, automobil-sektorearen produkzioa 2019koa baino % 22 baxuagoa izan zen. Turismoen salmenta berriz % 40 jaitsi zen.
- Harrezkero, inflexio-puntu bat ikusten da: 2022ko abuztutik 2023ko urtarrilera bitartean, industriak 2019ko hilabete beretan baino % 8 gutxiago ekoitzi zuen, eta saldutako automobilen arrakala % 27ra jaitsi zen.
- Hobekuntza hori BBVA Research-en aurreikuspenekin bat etorriko litzateke, automobilen salmentaren beherakadaren % 50 eskaintzaren urritasunak azaltzen baitu.

010 N


TURISMOEN
MATRIKULAZIOAK

Hazkundera mantendu egin daitezke 2023an eta 2024an

Industria uste baino hobeto eusten ari da

ONDASUNEN ESPORTAZIO NOMINALAK

(12 HILABETEKO METATUA 2023KO URTARRILERA ARTE: % A/U)



Energia-esporthazkundera eskalatik kanpo (+% 95 Euskadin eta +% 74 Espainian).
Parentesi artean, adarrak edo eremuak Euskadiko esporthazkundera guztizkoan duen pisua agertzen da.
Iturria: BBVA Research, Datacomex-etik abiatuta.


- 2023ko urtarrilera arteko hamabi hilabeteetan, Euskadiko esporthazkundera % 26 hazi ziren, sektore eta helmuga guztietan aurrerapenak lortuz. Nabarmentzekoa da erdimanufakturen, energiaren, ekipamendu-ondasunen eta automobilaren salmenten gorakada, oro har 21,9 puntuko ekarpena egin baitzuten.
- Termino nominaletan, 2022an, eskualdeetako ondasunen esporthazkundera % 27,8an gaintu dituzte 2019koak (Espainian, % 34). Nolanahi ere, prezioen eragina deskontatuz gero, geldialdia ikusten da; estatuan, berriz, 5,6ko igoera gertatu da oro har.
- 2021arekin alderatuta, 2022an % 5,6 hazi ziren termino errealetan (Espainian, +% 4,4).

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Lehiakortasunak hobetzen jarraitzen du marjinari eta ULKri esker


ONDASUNEN ESPORTAZIOAK: UNITATEKO BALIOAREN INDIZEAK

(2022TIK 2019RA BITARTEKO ALDAKUNTZA, %)



OSTATUAREN KPI

(2022TIK 2019RA BITARTEKO ALDAKUNTZA, %)



Iturria: BBVA Research, Haver-etik, EInetik, Datacomex-etik eta Ekonomia Ministeriotik abiatuta.


Espanian ondasunek eta zerbitzuek prezio-igoera garrantzitsuak izan dituzten arren, lehiakortasunean ez da narriadurarik gertatu. Ondasunak esportatzen dituzten autonomia-erkidegoek –hala nola Euskadik– igo egin dituzte prezioak, lehiakideek bezala; autonomia-erkidego turistikoek, berriz, beste turismo-helmuga batzuek baino hazkunde txikiagoak izan dituzte.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Etxeek eta enpresek hobetu egin dute beraien balantzea, eta interes-tasen igoeraren aurrean esposizio txikiagoa dute

BESTE SEKTORE EGOILIAR BATZUENTZAKO KREDITUA

(ESKUALDEKO BPGD-AREN %)



Iturria: BBVA Research, Espainiako Bankutik abiatuta.


Familien eta enpresen finantza-karga handitu egingo da interes-tasen igoeraren, inflazio handiaren eta ekonomia moteltzearen ondorioz. Egoera ez da 2008koa bezalakoa, eta Euskadi Espainia osoaren azpitik dago kreditu-bolumenari dagokionez.

Hazkundera mantendu egin daitezke 2023an eta 2024an

Bizkortu egin da NGEU funtsen exekuzioa

OBRA PUBLIKOAREN LIZITAZIOA

(2019KO ALDI BERA = 100)




- Obra publikoak pandemiaren aurretik izandako bultzadaren ondoren, **eskualdean obra publikoaren lizitazioan egindako aurrerapenak dinamikoak izan dira**, Espainia osoan ikusitakoaren ildo beretik.
- Horrela, **2022an lizitatutako obra publikoak ia hirukoiztu egin zuen 2019an lizitatutako zenbatekoa.**
- Hobekuntza horren atzean, **Suspertze Planaren exekuzioa egon liteke**. Espainian, obra publikoaren lizitazioaren % 15 baino gehiago ari da Planarekin finantzatzen.

Hazkundera mantendu egin daiteke 2023an eta 2024an

Behin-behinekotasuna murrizten ari da, lan egindako orduen kopuruan kostua areagotu gabe

2022an GIZARTE-SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN HAZKUNDEARI EGINDAKO EKARPENAK, KONTRATU-MOTAREN ARABERA (% ETA PUNTUAK)




Iturria: BBVA Research, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministeriotik eta EINetik abiatuta.

Lan-erreformak murriztu egin du enpleguaren hegakortasuna, kaleratze-kostua handitzearen eta behin-behinekotasuna murriztearen ondorioz. Ondorioak Mediterraneoko kostaldeko erkidegoetan nabaritzen ari dira batez ere (Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoan, Andaluzian eta Murtzian). Egonkortasun horrek produktibitatea handitzeko aukera eman lezake epe ertainera.

Aurrera begira: arriskuak

Energiaren kostuek beste igoera bat izatea

KONTSUMITZAILE HANDIEN KONTSUMO ELEKTRIKOA* ETA ENERGIA-KONTSUMOA BPG UNITATE BAKOITZEKO (2019)



(*) 10 kWh-tik gorako tarifak dituzten kontsumitzaileentzako urteko hornidura, eskualdeko hornidura elektriko guztien gainean.

Iturria: BBVA Research, Energia Kontsumoei buruzko Inkestatik, EInetik eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Energia Elektrikoaren Industriaren Estatistikatik abiatuta.


- Industria izan liteke denetan kaltetuena. Inpaktua lehia-mailaren eta merkatu-egituraren araberakoa da. Manufakturak munduko gainerakoekin lehiatzen dira, eta garaiz iristen diren intsumoak behar dituzte.
- Euskadik, espezializazio sektorialaren ondorioz, energia kontsumo handia du BPG unitate bakoitzeko, eta, gainera, enpresa askoren kasua da hori.
- Zerbitzuek pisu handiagoa duten eskualdeetan. Zerbitzuek oinarrizko industrietan baino intentsitate txikiagoko energia-kontsumoa izatean, txikiagoa izan da inpaktua.

Aurrera begira: arriskuak

Inflazio handia denbora luzez

AZPIKO INFLAZIOA

(URTE ARTEKO HAZKUNDEAREN %)




- Inflazioa oraintsu jaitsi egin den arren, martxoan % 3,4 izateraino, zailagoa izango da azpiko inflazioa murriztea. Hori guztia, gas eta erregaien kostu txikiagoak izan arren eta ekoizpen-kateetako botila-lepoak desagertuz joan arren.
- Eskariaren moteltzeak eragina izango du prezioen eraketan. Interes-tasen igoerak bereziki kaltetuko dituzten sektoreek, hala nola etxebizitzaren eta ondasun iraunkorren sektoreek, zuzenketa garrantzitsuagoak izan ditzakete. Era berean, pentsatzekoa da zerbitzu turistikoaren igoeraren zati bat lehengoratu egingo dela, sektoreak ingurune okerrago bati aurre egin behar izatean.

Aurrera begira: arriskuak

Gastu publikoa handitu egingo da, aurrekontu-orekako ingurune batean

EUSKO JAURLARITZA: GASTU PUBLIKOAREN ALDAKETARI EGINDAKO EKARPENA (ESKUALDEKO BPGD-AREN PUNTUAK)



(a): Aurrerapena; (p): Aurreikuspena
Iturria: BBVA Research, Ogasun Ministeriotik abiatuta.


- 2022ak Eusko Jaurlaritzaren gastua handitu egin dela berretsi zuen, azken kontsumoko gastuan eta inbertsio autonomikoan kontzentratuta. Horrekin batera, **diru-sarrerak modeldu egin ziren**, Estatutik etorritako aparteko diru-sarrerak kendu egin zirelako. Horrek guztiak **euskal kontu publikoen narriadura** ekarri zuen (BPG-aren % 0,1eko defizita erregistratu zen, aurreko urteko superabitaren aldean, % 0,9).
- 2023rako onetsitako aurrekontuek pentsarazten dute Euskadik **politika fiskal hedakorrekin jarraituko duela**, gastua handituz; hein batean, Suspertze Plana exekutatzearen ondorioz.

Aurrera begira: arriskuak

Inflazioa elikatzen duten mozkin-marjin handiak eta lan-eskaria

LAN-KOSTUA LANGILEKO ETA HILEKO

(4H22, A/U, %)




Iturria: BBVA Research, EINetik abiatuta.

- Inflazioak altua izaten jarrai dezake, negozioazio kolektiboak datozen hilabeteetan izango duen eraginagatik.
- Prezioen igoera orokortua egin da, eta horrek erakusten du enpresak galdutako errentagarritasunaren zati bat berreskuratzen saiatzen ari direla. Lan-kostuek gora egin dute, baina pandemia aurreko erosahalmena berreskuratu gabe; beraz, errenta-ituna sendotzea funtsezkoa izango da inflazioaren etorkizuneko bilakaerarako.
- Iparraldeko autonomia-erkidego batzuetan, lan-eskaintzaren murrizketek gorantz bultzatzen dituzte lan-kostuak.
- Euskadin, badirudi lan-merkatuaren susperraldia eskaintzaren zailtasunekin konbinatzen dela; zailtasun horiek lan-kostuen igoera azalduko lukete.

Aurrera begira: arriskuak

Hazkundera mugatzen duten tentsioak lan-merkatuan

BEVERIDGE KURBA: EUSKADI ETA ESPAINIA



- Enpresen enplegu-eskariari esker, langabezia-tasa murriztu egin da. Euskadin, langabezia-tasa % 8,6koa izan zen 2022an (Espainiako batezbestekoa baino 4,3 puntu txikiagoa).
- Langabezia-tasa murriztean, enpresek, normalean, gero eta zailtasun handiagoak izaten dituzte hutsik dauden lanpostuak betetzeko. Eta arazo horiek handiagoak izan daitezke aktiboak lan-merkatura itzultzeko duten erritmoa enpresen eskariarekin bat ez datorrenean.
- Espezialistak aurkitzeko zailtasunak azkar handitzen ari dira, eta arazo hori handiagotu egin liteke NGEU funtsen bultzadak espezialisten edo giza kapital handiko lanpostuen eskaria sortzen badu.

Aurrera begirako arriskuak

NGEU funtsak motel exekutatzea

OBRA PUBLIKOAREN LIZITAZIO OFIZIALA

(2019 = 100)






- NGEUren funtsen exekuzioak bultzada lortzen ari diren arren, denbora luzea beharko da inpaktua familietara eta enpresetara iristeko.
- Obra-lizitazioa Valentziako Erkidegoan, Andaluzian eta Gaztela-Mantxan bizkortzen ari da bereziki. Balearrek eta Errioxak, aldiz, aurrerapen txikiak izan dituzte.
- Euskadi tarteko puntu batean dago, eta aurrerapen moderatua izan du 2021ean eta 2022an. Baina azpiegiturretako ahaleginaren zati bat aurreko urteetan egin zen.
- Funtsen exekuzioak erritmoa hartzen joan ahala, onura handiagoak lortu ahal izango dituzte gastu publikoarekiko mendekotasun handiena duten autonomia-erkidegoek eta inbertsio-ondasunen hornitzaileek.

02

Aurreikuspenak

2022-2024: Euskadiko BPG-aren eta lan-merkatuaren aurreikuspenak*

	2022	2023	2024
 BPG	4,4	1,3	2,9
 Enpleguaren hazkundera (EPA)	2,4	0,6	2,0
 Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	8,6	8,4	7,2




* Ehunekoa, urteko batezbestekoak. 2022rako enpleguaren hazkundera eta langabezia-tasa EINEk argitaratutako datuak dira.
Iturria: BBVA Research.

2022-2024: BPGren eta per capita BPGren suspertzea


BARNE-PRODUKTU GORDINA

(2019 = 100, EURO KONSTANTEAK)



PER CAPITA BPGd

(2019 = 100, EURO KONSTANTEAK)




Iturria: BBVA Research, EINetik abiatuta.

Krisiaren eragina eta 2021eko susperraldia batezbestekoaren antzekoak izanik, BBVA Research-en aurreikuspenen arabera 2022an Euskadik ez zuen berreskuratu pandemiaren aurreko maila BPG-aren eta per capita BPG-aren kasuan, aurten lortuko duen arren. Eskualdeak dinamismo demografiko txikiagoa izateak aukera emango dio Euskadiri p.c. konbergentziara Espainia baino lehen iristeko.

Susperraldi bizia 2022an, baina, ia adierazle guztien arabera, Espainia osoak baino dinamismo txikiagoa izanik

EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO KOIUNTURA-ADIERAZLEAK 2022AN

(A/U, %)




Iturria: BBVA Research, BBVAtik eta iturri nazionaletatik abiatuta.

2022an, ekonomiaren dinamismo handia erakusten dute Euskadiko adierazleek, ondasunen esportazioen eta industria-produkzioaren hazkundera nazio osoa baino handiagoa izanik. Aitzitik, eskualdeko turismo-adierazleek, kontsumoak eta enpleguak bultzada txikiagoa izan zuten.

Gorantz berrikusi da 2023ko hazkundera, % 1,3ra arte

Botila-lepoak desagertzeak industria bultzatzen du, eta bereziki automobilgintza

EKOIZPEN INDUSTRIALEKO INDIZEA, ENERGIA KANPOAN UTZITA, 2022AN (2019 = 100)



Parentesi arteko balioek 2021ean Industriak (A1 B eta E arteko dibisioak) eskualdeko BEGd-ean duen pisua adierazten dute.

Iturria: BBVA Research, EInetik abiatuta.

- 2019az geroztik, industriak ondorio negatibo batzuk jasan ditu: zerga-aldaketak, erregulazio- eta teknologia-ziurgabetasuna, pandemia, telelana, beste garraio-modu batzuen lehia...
- Lehengo negozio-mailak berreskuratzeko eragozpenik handiena botila-lepoak dira, zenbait intsumoren hornidurari eragiten baitiote.
- Eskaintza suspertzen hasi dela adierazten duen ebidentzia dago. Zazpi autonomia-erkidegok jada berreskuratu dute COVIDaren aurreko industria-jardueraren maila, baina iparraldeko eskualde gehienak, industria-jardueraren pisu handiagoa izanik, BEG-ean, azpitik daude oraindik.

Lege-Oharra

Dokumentu hau ez da "inbertsio-gomendio" bat, merkatu-gehiegikeriari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 596/2014 (EB) Erregelamenduaren ("MAR") 3.1 (34) eta (35) artikuluetan zehazten denaren arabera. Zehazki, dokumentu hau ez da "inbertsio-txosten" bat, ezta "publizitate-komunikazio" bat ere, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 36. artikulua ondo oinarritutako. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen du, inbertsio-zerbitzuetako enpresen antolamendu-betekizunei eta funtzionamendu-baldintzei dagokienez ("MiFID II").

Irakurleek jakinaren gainean egon behar dute ezin dutela hartu dokumentu hau euren inbertsio-erabakietarako oinarri gisa, eta inbertsio-produktuak eskaini ahal dizkieten pertsonak edo erakundeak legez behartuta egongo direla, erabaki hori hartzerakoan, behar duten informazio guztia ematera.

Dokumentu hau BBVA Research Departamentuak egin du eta dibulgazio-izaera du. Datari buruzko datuak eta iritziak jasotzen ditu, guk egindakoak, zein guretzat iturri fidagarritzat ditugun horietan oinarritutakoak, BBVAk bere kabuz egiaztatu ez baditu ere. BBVAk, beraz, ez du berme propiorik edo inpliziturik eskaintzen, dokumentuaren zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari dagokionez.

Dokumentu honetako edukia aurretiko abisurik gabe alda daiteke, adibidez, testuinguru ekonomikoa eta merkatuaren gorabeherak aldatzen diren heinean. BBVAk ez du bere gain hartzen edukia eguneratzeko edota aldaketak jakinarazteko konpromisoa.

BBVAk ez du bere gain hartuko erantzukizunik dokumentu honen erabileraren ondorioz egon daitezkeen edonolako galeren aurrean, zuzenekoak zein zeharkakoak.

Ez dokumentua bera, ezta bere edukia ere, ez dira finantza-aktiboetan edo -tresnetan inolako interesik eskuratzeko, desinbertitzeko edo lortzeko eskaintzarik, gonbidapenik edo eskaerarik, eta ezin dira inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri izan.

Dokumentu honetako edukia jabetza intelektualaren legeak babesten du. Zeharo debekaturik dago erreproduzitzea, eraldatzea, banatzea, komunikazio publikoa egitea, eskura jartzea, erazte, berrerabiltzea, birbidaltzea edo edozein eratako erabilera egitea, edozein bide edo prozedura erabilita, salbu eta legez baimenduta badago edo BBVAk propio baimenik eman badu bere www.bbvarsearch.com webgunean.


Situación País Vasco 2023

Zertan den Euskadi

2023ko apirilak 20

Erronka: berotegi-efektuko isuriak murriztea, nahiz eta hein batean espezializazio sektorialak justifikatuta egon


AUTONOMIA-ERKIDEGOAK: SORTUTAKO ETA KONTSUMITUTAKO ELEKTRIZITATEAREN DITUZTEN PISUAK (% , 2020)



■ Pisua sortutako elektrizitatean % ■ Pisua kontsumitutako elektrizitatean %

Iturria: BBVA Research, Red Eléctrica-ren datuetatik abiatuta.

AUTONOMIA-ERKIDEGOAK: BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN (BEG) ISURIETAN ETA BPG NAZIONALEAN DITUZTEN PISUAK (% , 2020)




■ Pisua BEG isurien guztizkoan ■ Pisua BPGd isurien guztizkoan %

Iturria: BBVA Research, MITECOren eta EINen datuetatik abiatuta.

Euskadik, konfigurazio sektorial eta geografiko berezia duenez, eskatzen duena baino elektrizitate gutxiago ekoizten du. Bestalde, sortzen dituen berotegi-efektuko gasak BPG-an duen pisuaren antzekoa da ehunekotan. Horrek aldatzen joan behar luke pixkanaka, datozen urteetan energia berriztagarriek izango duten bultzada dela-eta.

Euskadik, 2022an, bizkortu egin zuen gastu autonomikoaren hazkundera

EUSKO JAURLARITZA: AZKEN KONTSUMO NOMINALEKO GASTUA* ETA INBERTSIOA (% , A/U)



■ Euskadi
■ Autonomia-erkidegoak guztira

(*) Azken kontsumo nominalako gastura hurbiltzea, kapital finkoko kontsumoa alde batera utzita

(a): Aurrerapena.

Iturria: BBVA Research, Ogasun Ministeriotik abiatuta.

- Aurrekontu-exekuzioaren itxierako datuek berretsi zuten 2022an Eusko Jaurlaritzak **gastuaren goranzko bideari** eutsi ziola, bai azken kontsumoko gastuan, ordainsarien igoeragatik eta prezioen gorakadagatik, bai inbertsioko gastuan.
- Urtearen hasieran, Euskadik eutsi egin dio 2022ko azken hilabeteetan ikusitako hedapenari, eta aurreikusten da 2023an **beste bultzada bat emango zaiola autonomia-erkidegoaren gastuari, bereziki handia kapital-gastuan**, Suspertze Planeko inbertsioak bizkortzeko.